



# Primer encuentro de jóvenes investigadores: nuevos retos del derecho digital



**Ira. 09 2024**

**Kod. D20-24**

**Mod.:**

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

**Edizioa**

2024

**Jarduera mota**

Uda Ikastaroa

**Data**

Ira. 09 2024

**Kokalekua**

Miramar Jauregia

**Hizkuntzak**

Gaztelera

**Balio akademikoa**

10 ordu

**Antolakuntza Batzordea**





Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

## Azalpena

Sarea sortu eta ikerketa-ildo berriak sustatzeko, teknologia berriek zuzenbidean duten eragina aztertzen duten ikertzaile gazteak batu nahi dira. Horrela, hitzaldi bakoitzaren gaiaren arabera, taldeak banatu eta ondoren eztabaida egingo da. Era berean, Euskal Herrian eta nazioartean gauzatu diren bi kasu praktiko aurkeztuko dira, esparru horretan praktikan sortzen diren arazoak aztertzeko helburuarekin.

## Helburuak

Ikertzaile gazteen sarea sortzea.

Ikerketa lerro berrien sorrera sustatzea.

Ikertzaile gazteei ikusgarritasuna ematea.

## Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



# Programa

2024-09-09

08:45 - 09:00 Erregistroa / Registro

---

09:00 - 09:10 Inaugurazio instituzionala. Parte hartzeko ordena:

**Idoia Landa Reza** | UPV/EHU - Profesora Ayudante Doctora

---

09:10 - 11:10 “La contratación en el entorno digital”

La digitalización del Derecho de obligaciones

**Esther Arroyo Amayuelas** | Universidad de Barcelona - Catedrática de Derecho Civil

Manipulación del consentimiento del consumidor digital mediante patrones oscuros

**Aitor Mora Astaburuaga** | Universidad de la Rioja - Investigador predoctoral

La imputación de responsabilidad a Amazon por la comercialización de productos defectuosos

**Tomás Gabriel García Micó** | Unviersidad de Barcelona - Investigador postdoctoral

---

11:10 - 11:40 Atsedena

---

11:40 - 13:40 Mahai ingurua: “El derecho a la Protección de Datos Personales “

La herencia digital

**Sergio Cámara Lapuente** | Unviersidad de la Rioja - Catedrático de Derecho Civil

La protección de los datos de la persona fallecida

**Idoia Landa Reza** | UPV/EHU - Profesora Ayudante Doctora

A propósito del Espacio Europeo de Datos de Salud: interacciones y asimetrías con la protección de datos personales

**Mikel Recuero Linares** | UPV/EHU - Investigador Predoctoral

---

13:40 - 15:40 Atsedena

---

15:40 - 18:20 Mahai ingurua: “Derecho de Inteligencia Artificial”

La protección de datos en la era de la Inteligencia Artificial

**Itziar Alkorta Idiakez** | UPV/EHU - Profesora Titular de Derecho Civil

La responsabilidad de los prestadores de servicios en la sociedad de la información ante el nuevo art. 7 del Reglamento de Servicios Digitales

**Mario Santisteban Galarza** | UPV/EHU - Investigador Predoctoral

Confianza sin fronteras: La interoperabilidad entre sistemas en el Espacio de Libertad, Seguridad y Justicia

**Francesca Tassinari** | UPV/EHU - Investigadora postdoctoral

Supervisión humana de sistemas de IA en el AIAct y en el RGPD

18:20 - 18:30

Itxiera

**Idoia Landa Reza** | UPV/EHU - Profesora Ayudante Doctora

---

## Zuzendaritza



### **Idoia Landa Reza**

UPV/EHU

---

Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Zibileko irakasle laguntzaile doktorea. 2023ko otsailean "El derecho a la protección de datos personales en el ámbito sanitario conectado: especial referencia a las mayores con discapacidad" nazioarteko doktore-tesia defendatu zuen, eta Cum Laude kalifikazioa lortu. 2021eko irailetik 2022ko otsailera bi doktorego egonaldi egin zituen: lehena Alma Mater Studiorum Unibertsitatean (Bologna, Italia) eta bigarrena Dublin City University Unibertsitatean (Dublin, Irlanda). Kontratatu ikertzailea izan da SMART BEAR proiektuan, EBko Horizonte 2020 programaren barruan. Era berean, Eusko Jaurlaritzaren Hazitek programaren baitan

## Irakasleak



### Itziar Alkorta Idiakez

Uda Ikastaroak / Cursos de Verano, Zuzendari akademikoa / Directora académica

---

Zuzenbidean doktorea eta EHUko Zuzenbide Zibileko irakasle titularra. Bere ikerketaren ildo nagusia bioetika da eta gai horren inguruan hainbat monografia, artikuluko zientifiko eta dibulgaziokoak argitaratu ditu. VI eta VII Europako Programa Marko-ko 4 ikerketa-proiektutan parte hartu du, baita Programa Nazionalen hainbat ikerketa-proiektutan ere. New Yorkeko Hastings Center for Bioethics, Filadelfiako Unibertsitateko Center for Bioethics eta Bordeleko Unibertsitateko irakasle bisitaria izan da. Eusko Ikaskuntzako idazkari nagusia izan zen, eta ondoren Jakiundekoa, Zientzia, Arte eta Letren Akademiakoa. UPV/EHUko irakaskuntzako kalitate eta berrikuntzako errektoreordea 2008 eta 2012 urteen artean, eta hezkuntza-ereduaren garapenaz, kalitate-programez eta unibertsitateko irakasleen prestakuntza eta ebaluazioaz arduratzen da. 2013 eta 2015 urteen artean, Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea izan zen.



### Esther Arroyo Amayuelas

---

Bartzelonako Unibertsitateko Zuzenbide Zibileko katedraduna eta EBko Zuzenbide Pribatuko Jean Monnet Katedrako titularra. Europako eta estatuko hainbat proiektutan hartu du parte, Europako Zuzenbide Pribatuaren eraikuntzan eta garapenean sakontzen dutenak. Alemaniako DAADen (2003), Alexander von Humboldt Fundazioaren (2006-2007) eta Europako Zuzenbidearen Institutuaren (2010) kidea da; irakasle bisitaria ere izan da Estatuko, Amerikako, Europako eta Asiako hainbat unibertsitateetan. Gaur egun, Europako eta Espainiako Zuzenbide Pribatuko irakaslea da Bartzelonako Unibertsitatean, eta Kontratu Zuzenbidea irakasten du Münster-eko unibertsitatean.



### Sergio Cámara Lapuente

---

Zuzenbide Zibileko katedraduna Errioxako Unibertsitatean (2007ko urritik, gaikuntza nazionala urte berean gainditu ondoren). 1996an lizentziatu eta sari bereziarekin doktoratu zen Nafarroako Unibertsitatean, eta 1999an Errioxako Unibertsitatean oposizio bidez irakasle titular kategoria eskuratu


zuen. Ikerketa-egonaldiak egin ditu Alemanian (Friburgo, 1993, Munich, 1996), eta visiting scholar izan da Oxfordeko Unibertsitatean (2003 eta 2015). Zuzenbide espainiarrari, europarrari eta konparatuari buruzko argitalpen monografiko eta kolektibo ugarietz gain (oinordetza-zuzenbideari, kontratuari, kontsumoari, jabetza intelektualari edo zuzenbide digitalari buruzkoak), aktiboki parte hartu du Europako zuzenbide pribatua eraikitzekeo prozesuan: batetik, nazioarteko ikerketa-sare ospetsuetako kide gisa, eta, bestetik, txostengile nazional gisa, Europako Batzordeak kontsumo-zuzentarau berriak berrikusteko edo egiteko finantzaturako hainbat proiektutan Espainia ordezkatzuz, bai eta Europako Batzordeak izendatutako aditu gisa ere, ondorengotzei eta testamentuei buruzko EBko erregelamendu-proiektuaren azterketa kritikoa egiteko (Londres, 2008).



### **Tomás Gabriel García Micó**

---

Zuzenbidean doktorea, 2022ko abendutik Bartzelonako Unibertsitateko SECTI doktoratu ondoko ikertzailea da eta, 2023ko uztailaz geroztik, AQU Catalunya-ko irakasle irakurle gisa akreditatuta dago. ELI project on Guiding Principles and Model Rules on Algorithmic Contracts erakundeko Aholku Batzordeko kidea. 2023ko irailetik 2024ko urtarrilera, doktoratu ondoko ikertzaile bisitaria izan zen Minhoko unibertsitateko Investigação em Justiça e Governação (JusGov) zentroan. 2022ko uztailan Zuzenbideko doktoregoa lortu zuen, Cum Laude kalifikazioarekin. Bere tesiak "Robotika kirurgikoa eta kalteen zuzenbidea" zuzenbidearen eta teknologia kirurgiko berrien arteko elkarguneak zituen aztergai, zuzenbidearen ikuspegi konparatu batetik. Doktoregoan zehar, bi ikerketa-egonaldi egin zituen: lehena, Txina-EU School of Law-n (Pekin, 2019ko iraila) eta, bigarrena, Dickson Poon School of Law-n, King 's College London-en (Londres, 2020ko urtarrila-apirila).



### **Guillermo Lazcoz Moratinos**

---

GUILLERMO LAZCOZ MORATINOS (CIBERER-ISCIII) Doctor en Derecho por la Universidad del País Vasco (UPV/EHU) Investigador jurídico en el Centro de Investigación Biomédica en Red - Proyecto IMPaCT-Genómica del Instituto de Salud Carlos III Premio de investigación Emilio Aced 2022 de la Agencia Española de Protección de Datos Sus líneas de trabajo se centran en la protección de datos en los ámbitos de la asistencia sanitaria y en la investigación biomédica, con especial atención al desarrollo de nuevas tecnologías e inteligencia artificial. En su tesis doctoral trabajó en la gobernanza y supervisión humana de la toma de decisiones basada en la elaboración de perfiles.





## **Aitor Mora Astaburuaga**

---

Errioxako Unibertsitateko doktoratu aurreko ikertzailea. Zuzenbideko gradua (2017) eta abokatutza masterra (2019) egin zituen unibertsitate berean. Zuzenbide konparatuko ikastaro bat egin du Pariseko Pantheon Assas 2 Unibertsitatean (2019) eta hiru hilabeteko ikerketa egonaldia Amsterdam Centre for Transformative Private Law-n (2024). 2017az geroztik, ingurune digitalean kontsumo-zuzenbideari buruzko gaiak lantzen ari da, eta, besteak beste, García Goyena artikuluko juridikoen sarietako (2019/2020) bigarren sari bat jaso du. Gaur egungo ikerketa-ildoak kontratu-baimenaren eta eremu digitaleko gardentasunaren azterketan oinarritzen da, " La aplicación del principio de transparencia en el proceso de formación de los contratos celebrados con consumidores en el entorno digital " tesiarekin.



## **Mikel Recuero Linares**

---

Ikertzaile kontratatua (EuCanImage proiektua, Europako Batzordearen H2020 programa) eta doktoregaia («Investigación científica y datos personales sensibles: respuestas europeas ante desafíos globalizados») UPV/EHUko Teknozientzia Berriei aplikatutako Gizarte eta Lege Zientzien G.I.an. Ikerketa egonaldia egin zuen Vrije Universiteit Brussel-eko Law, Science, Technology and Society Research Group-en (LSTS). Espainiako Datu Babeseko Agentziaren Emilio Aced Ikerketa Sariaren akzesita jaso zuen 2019an. Era berean, irakasle laguntzailea (UNED, UdeSA) zein zuzenbide digitalean eta datuen babesean espezializatutako abokatua da. Abokatutzako Masterra (UPV/EHU) eta Telekomunikazioen Zuzenbidea, Datuen Babesa, Ikus-entzunezkoa eta Informazioaren Gizarte Masterra (UC3M) ditu. Zuzenbideko eta Giza Genomako Sareko kide, GA4GH eta Citizen8, eta Farmaindustriako JGKO-ko ordezkaria da.




## **Francesca Tassinari**

---

Francesca Tassinari Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Zuzenbide Publikoko Saileko Juan de la Cierva doktoretza-ondoko ikertzailea da. Zientzia juridikoetan, Europar Batasuneko zuzenbidean eta ordenamendu juridiko nazionaletan doktorea da Granadako Unibertsitatean (UGR) eta Università degli Studi di Ferraran (UNIFE). Berezko Atzerritartasun Zuzenbideko Masterra eta Nazioarteko eta Europako Goi Ikasketetako Masterra gainditu zituen UGRn. UNIFEn eta UGRren arteko Zuzenbideko Gradu Bikoitzean graduatua, bere profil akademiko bikaina bi aldiz saritu dute Ferrara School of Law

eta Granadako UGR-Caja Rural elkarteek. Bere ikerketa-ildo nagusiak migrazio-fenomenoari eta nazioarteko eta Europar Batasuneko zuzenbideko polizia-lankidetzari aplikatutako teknologia berrien - biometrikoa eta adimen artifizialekoa - erabilera aztertzeraz mugatzen dira.



**Mario Santisteban Galarza**

---

# Matrikula prezioak

| <b>AURREZ AURRE</b>  | <b>2024-05-31 ARTE</b> | <b>2024-09-09 ARTE</b> |
|--|------------------------|------------------------|
| <a href="#">Gazte tarifa</a>   | 25,00 EUR              | 33,00 EUR              |
| Orokorra   | -                      | 47,00 EUR              |
| <a href="#">Matrikula murriztua orokorra</a>                                 | -                      | 40,00 EUR              |
| <a href="#">Matrikula exentzia</a>   | -                      | 33,00 EUR              |
| <a href="#">Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide</a> | -                      | 40,00 EUR              |
| <a href="#">Elkar</a>  | -                      | 40,00 EUR              |

| <b>ONLINE ZUZENEAN</b>   | <b>2024-05-31 ARTE</b> | <b>2024-09-09 ARTE</b> |
|--|------------------------|------------------------|
| <a href="#">Gazte tarifa</a>   | 25,00 EUR              | 33,00 EUR              |
| Orokorra   | -                      | 47,00 EUR              |
| <a href="#">Matrikula murriztua orokorra</a>                                 | -                      | 40,00 EUR              |
| <a href="#">Matrikula exentzia</a>   | -                      | 33,00 EUR              |
| <a href="#">Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide</a> | -                      | 40,00 EUR              |
| <a href="#">Elkar</a>  | -                      | 40,00 EUR              |

# **Kokalekua**

## **Miramar Jauregia**

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa